

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **38/2022 Mozioa, apirilaren 26koa, basurdeek eragindako kalteen inguruan hartu beharreko neurriei buruzkoa**

Arabako Batzar Nagusi hauetako VIII. Nekazaritza Batzordeak, 2022ko apirilaren 26an egindako bilkuran, mozio hau onetsi zuen:

38/2022 Mozioa, apirilaren 26koa, basurdeek eragindako kalteen inguruan hartu beharreko neurriei buruzkoa.

1. Arabako Batzar Nagusiek honako hau eskatzen diote Arabako Foru Aldundiari: eguneratu ditzala basurdearen populazioaren inpaktu sozioekonomikoari buruz eskuragarri dauden azterlanak eta lurraldean haien populazioa kudeatzeko oinarriak, eta horretarako, ezar ditzala zein diren kalteak sortzen laguntzen duten faktoreak eta lursail publiko eta pribatuetan basurdeak kontrolatzeko metodoak.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote aurrekontuan berariazko partida bat gaitu dezala kalteak aurreikusteko neurriak errazago ezar daitezen, itxitura-materiala edota baita laguntza ere eskura ahal izan dezaten hala eskatzen dutenek kanpoaldeko lan horiek egiteko.

3. Arabako Batzar Nagusiek zera eskatzen diote Arabako Foru Aldundiari: jarrai dezala basurdeak eragindako kalteak kontrolatzeko neurriak hartzeko administrazio-izapideak errazten eta azkartzen, martxoaren 17ko Ehizaren 2/2011 Legearen eta dagozkion foru arauen esparruan.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilaren 26a

*Presidente*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**